



Arranoa

Doinua: Hamalau heriotzena.

— 1 —

Airearen hegoan, Arranoa egan.
Etxean erbesteko, ura behar edan.
Pausa lekurik nola, ez daukan aukeran.
Historia oraindik, aurka bai du segan.
Eskubide bideak, kobratuaz zergan.

— 2 —

Nekatu ezinezko, txori bidaiari.
Soka lortutzen duzu, nahasiz mila hari.
Artzaiaren txistura, ardia da adi.
Nire sentimentuek, zu zaituzte kabi.
Ilunaren ondoko, egun senti garbi.

— 3 —

Ahulezian indarra, ezinaren kemen.
Ekaitzaren aurkako, zutabe nabarmen.
Kontra esanen bil gai, gogoen hitzarmen.
Eztabaiden lekuko, esperantza lerdan.
Bizkar jipoituaren, zentzu gaur ta hemen.

— 4 —

Mendera ezingo den, kastaren erentzi.
Pakezko ikus puntu, biren diferentzi.
Armen pakeak ezin, zaitzake irentsi.
Egiazkoak behar, zaitu laister jantzi.
Askatasun haizeen, betiko irrintzi.

— 5 —

Errementariaren, auspo eta mailu.
Burdin eskultura bat, arte lan ispilu.
Baieztapena edo, ukamen istilu.
Politikan hotz-bero, mailan neurri gailu.
Ametsik gozosenen, kutxaren gordailu.

— 6 —

Gau izartsu bateko, maite atsegina.
Igeltseroen orma, ohean zurgina.
Lorarik ederrenak, dituen jardina.
Untzia kulunkatzen, den itxaz urdina.
Eta untzi gainean, dagon ikurrina.

— 7 —

Goizean goiz, ernetzen, den eguzki printza.
Lora eta zelaiak, hartzen duten ihintza.
Oporretago egun, pasaren plangintza.
Laborarien fruitu, langile ekintza.
Arrantzaleen sare, zapalduen haintza.

— 8 —

Zerutik zintzilika, dagoen izarra.
Edo eta erreka aldeko, lizarra.
Poeta kantariak, moztu dun bizarra.
Testamentu zaharreko, itunen hitz zaharra.
Hasier ta Amaian, urrezko pizarra.

— 9 —

Euskaldunentzat altxor, txit baliosoa.
Etsaientzat etsaia, guk lagun gozoa.
Bide bakarra dago, aurrera pausoa.
Justiziaren alde, gudu eraso.
Arranoa zaitugu, pakezko usoa.

— 10 —

Arranoa zuretzat, hainbat hitz potolo.
Norbaitentzat negoke, buruz kili-kolo.
Zure seaska hortan, binbili-bonbolo.
Murgildurik nola ez, dugu egingo lo.
Zu bai zara Euskadi, askean «sinbolo».

USAKUME